

4. Federiko Krutwig eta euskararen jatorria: Garaldea eta euskera-guantxera parekotasunak

Xabier Renteria Uriarte



Ekonomia eta Enpresa Zientzian doktorea EHUUn. Argitalpenak: *Hacia una Economía Holográfica. Una revisión de la Ciencia Económica a partir de la Ontoepistemología Oriental (2013) - Del crecimiento al desarrollo y del desarrollo al rock* en Asier García Lupiola (ed.) (2007) *Economía y Rock. La influencia de las relaciones internacionales y la economía mundial en el rock. - ¿Es posible un desarrollo económico basado en el amor? una propuesta desde las visiones del mundo del Sur*; Contribuciones al debate sobre el Desarrollo Humano Local. - "Maitasunaren Ekonomia: ekonomia sozialaren sakontzea; Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean.

Irakaslea EHUKo Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan.

Zientziaren praktika eta metodologia berria eraikitzen ari da Ekialdeko filosofiaren, zorientasunaren eta maitasunaren ikuspegitik. Horren aplikazioak proposatzen ditu ekonomian eta euskal mundu-ikuskeran. Aparte politika ekonomikoa, inflazioa, enpresa kultura edo lan merkatua ikertu ditu.

a) Intelektualki aldeanitzta eta orijinala

Euskal Herria txikia da, baina kronikoki seme apartak eta orijinalak erditzen ditu. Zentzu horretan, Federico Krutwig Sagredo (Getxo, 1921 - Bilbao 1998) XX. mendeko Agosti Xaho dela iritzi daiteke; garaikideek begiak jartzen ez dituzten lekuetan arreta jartzen duten horietakoa.

Ez-ohiko ideian artean, besteak beste, honakoak aurki ditzakegu:

- Euskararen ekialdeko erlijioekiko aldekotasunak agertu zituen (1945), paganismo modernoa eraikitzeko euskal sustraietan oinarritutakoa zokoratu eta "Erromako eta Greziako paganismo argitsua" nahi zuen arren (1997, 87. orr).
- Euskal komunalismoaren deskribapen eta balorazio zorrotzak egin zituen, anarkismoa aipatu gabe gizarte anarkista popular baten proposamena eginez (1963).
- *Etnokrazia* irizpidearen apologia (1971), gaur egun politikoki ez-zuzenak diren iritziak aldarrikatzeko bildurrik gabe.
- Defentsa armatuaren behar historikoa onartu eta antolatu beharra aldarrikatu zuen, ETAkideentzat gau.
- Mahai liburua omen zen *Vasconia* liburuaren amaieran (1963).

Beste dimentsio baten, euskara batua lortzeko lapurtera klasikoaren eredua aldarrikatu zuen, eta idazkiak euskalki horretan eta eredu horretan gorputzu.

Zientzia mailan, aztertzaile metodikoa zen. Gaia muietik eraikitzen zuen, gero ikuspuntu desberdinetik begiratua emanez.

Kudeaketan, Azkuerekin Euskaltzaindiaren suspertzaile izan zen, antolatzaile sena erakutsiz. Egun gezurra badirudi ere, Euskaltzaindian elkarriketak eta eztabaidak euskaraz izan zitezten eskatu zuen.

Pertsona mailan, jatorra eta adeitsua zela esaten da, gogora zauden horietakoa. Pertsona aldeanizta izanik eta zeukan etorria kontuan harturik, bistan da orduak emateko pertsona interesgarria eta atsegina izango zela. Intelektualtasunean, hala ere, ez zuen hau gehiegi islatu, idazkietan besteen ideiak kritikatzeko moduak ez dituelako ulertzaileak eta eraikitzaileak, sarri mesprexutan espresatuak baizik.

Euskara bere kabuz ikasi zuen, haurtzaroan. Aita alemana zuen, ama Bizkaikoa baina Italiar sendi batekoa. Inguruan dena zen erdara: alemana eskolan, espainola etxean. Baina neskame baten eskutik hasi zen euskara ikasten, zortzi urterekin. Hamar urterekin seriotan hartzen zuen ataza, eta hamalau urteetarako hitz egiteko gauza omen zen.

Nire aita eskuindarra zen. Ama ez zen anti-euskalduna, baina aitak pentsatzen zuen euskara baliorik gabekoa zela. Gogoratzen naiz batzuetan joaten nintzela ohe azpira liburuekin, aitak jakin ez zezan euskara ikasten ari nintzela. Aitak pentsatzen zuen lagunartean gehiago ibili behar nukeela, ikasten denbora gehiegi egiten nuela, eta batzuetan liburuak kentzen zizkidan. (1997, 64. orr.)

b) Euskeraren jatorriari buruz


Euskaldunak Europa mendebaldeko eta Afrika iparraldeko plataforma sozio-linguistikoko aurreindoeuroparraren azken aztarna bizia dira, plataforma horrek Sumeriako eskualdearekin lotura estuak izan zituelarik ere. Hori da Krutwigen uste nagusia. Beraz, dela hizkuntza-kide direlako, etnia-tzar-kide direlako, ala erlazonaturik daudelako, plataforma soziolinguistikoko aurreindoeuropar handi baten azken herri europarra dira euskaldunak. Alde europar horri eman zion 'Garaldea' izena:

Garaldeaz ari naizenean, sustrai bereko hizkuntz aurreindoeuroparretan mintzo ziren Atlantikoko kostako herriez ari naiz. (1997, 97. Orr)

[Es] un fondo preindoeuropeo común a toda la Halbinsel Europa que nosotros llamamos GARALDEA, palabra que formamos a partir de GARA = altura, elevación, montaña, y ALDE = región. (1978, 39. orr) 39. Orr

Euskal Herria bizirik mantendu denez, Garaldearen misterioa eta Sumeriako erlazioak desestaltzeko euskaran dakusa gakoa:

El vascuence [es un] hilo de Ariadna para atravesar el laberinto de los orígenes europeos (1978, 10. Orr)



Horrela, Krutwigek (1968) "Euskalerria, munduko kultura zaharrenen ikerketarako gakoa" zela proposatu zuen, Vennemann'en *euskal substrato edo substratu baskonikoa*, edota *Europa Vasconica gehi Europa Semitica geruzak* delakoen estiloan.

c) Guantxera eta euskeraren parekotasunak

Plataforma soziolinguistiko aurre-indoeuroparrera ailegatzeko bide luzea egin zuen:

Liburu batzuk aurkitu nituen kanariar hizkuntzari buruz. Adibidez, Lanzarote. Euskal izena da! Lanzarote espainola da baina egiazko izena da Launtzuarde, La Ahuntz Uharte, la isla de las cabras. Euskarazko berrogei bat izen badira (1997, 96-97 orr.).

Eskozian ere, kaledoniarrekin, antzekotasunak aurkitu zituen euskararekin. Eta grekoan, horko aurreindoeuropar aldeak ikusita. Horrela, hizkuntza-sendi zabalaz ohartu zen.

Eta sendi horretan argiena Guantxea eta euskara familia berekoak zirela zekusan. Hori erakusteko, *Garaldea* liburuan euskararen eta Kanariar Uharteetako Guantxeen hizkuntza aztarnen parekotasunak bilatu zituen batez ere, besteen artean:

En esta Garaldea tiene la lengua [vasca] su gran importancia por ser la única lengua del grupo pre-indoeuropeo aun hoy hablada en Europa. La lengua canaria tiene, empero, una gran importancia por haber sido hablada por un pueblo que vivió hasta el siglo XV de nuestra era. (1978, 12. Orr)

d) Guantxera-euskera parekotasunak aurkitzeko metodoa

Bere metodoaren adibide argia da liburuaren hasieran erakusten duena.

[T]odos los pueblos que se reclaman de un origen pre-indoeuropeo han materializado en el mito de Ilion, y del Laberinto su propia idiosincrasia. No suponemos que se trate, en la mayor parte de los casos, de auténticas emigraciones de troyanos, por más que pueblos emparentados con los troyanos hayan inmigrado en Europa trayendo la cultura neolítica desde la Luna Media Fértil, en donde se había descubierto la agricultura ... Nuestro hilo de Ariadna en esta investigación garaldetana demuestra ser la lengua vasca. (1978, 10. orr)

Laberintoen inguruan eman den 'hiri' hitzaren nondik norakoak eztabaidatzen ditu:

[E]n la Edad Media se consideraba a Troya ser la ciudad o la capital por excelencia. Y ... también Jerusalén compartía este título, así como ... a veces, ... Roma y Babilonia. (1978, 11. orr)

Euskararen irizpidea erabiltzen ez duena galduta egongo da, eta horri buruzko autoreka kasu gisa ematen du:

[En] un tratado del autor italiano Santarcangeli, que se llama 'Los Laberintos', su autor ... se encuentra ... perdido ... da vueltas y más vueltas ... [y] su despiste aumenta... (1978, 11. orr)

Aldiz,

Nuestro hilo de Ariadna nos da la respuesta: ... Ilion (así como Ilun e Iruña) significa la capital y ... Irusalim, forma sumeria primitiva, que es la auténtica, también significa lo mismo. (1978, 11. orr)

Horrela,

[U]na gran parte de pueblos, que podemos suponer de origen pre-indoeuropeo, aunque desnacionalizados conservaron en su tradición ese conocimiento de que Ilion quiere decir capital, (1978, 12. orr)

Jauzi handia ez da, bere ustez, etimologia konparatuari begira:

[D]e la misma forma ... los celtas que aceptaron y codificaron las tradiciones de sus predecesores dieron igualmente a estas ciudades en galés nombres como Caerdroie y Caersalem. (1978, 12. orr)

Horrela, zelai semantiko horretako terminuak desestaltzen ditu:

¿Y Roma? Aquí nos vienen en ayuda los estudios canarios realizados por el Dr. Dominik Woelfel sobre el nombre roma que existía en las Islas Canarias donde así se

llamaba a una torre cuadrada. ...la primitiva Roma ... se llamaba Roma Quadrata y ... en vasco orma significa muralla, tendríamos la solución [Igualmente] Babilu ... seguramente encierran el componente BAD sumerio que también significa muralla de ciudad. Esto nos hace suponer que... [eta darrai] . (1978, 12. orr)

Geroago (24-39. orrialdeetan) argudioak zehazten ditu, baina orain metodoan jartzen dugu arreta:

El hilo de Ariadna nos conduce por el laberinto por las culturas megalíticas y sumeria. ... nos conduce luego a los textos canarios (1978, 12-13. orr)

Eta ondorioz:

[L]as palabras culturales originarias de lenguas que han sido influenciadas por ese fondo garaldetano deberían impulsarnos a estudiar directamente esos fondos pre-indoeuropeos, así como a adoptarlas en vascuence en forma correcta. ... [N]o sólo Woelfel, sino también otros científicos que han estudiado las lenguas latinas, se han dado cuenta que las diferencias que separan entre sí a ciertas lenguas románicas tienen un origen garaldetano. (1978, 14. orr)

e) Parekotasunak: hitzak, esaldiak, aditz-egiturak...

Aurreko metodoaren filosofiaren pean, Krutwigek (1978) parekotasunak sistematizatzen ditu. Amaierara heldu baino lehen handik hemendik eskaintzen du baten bat, adibidez:

En esta Garaldea ... la parte central engloba una región llana que podríamos llamar IZKALDEA, nombre formado de IZ = mar y ALDE = región. Esta palabra es la que hemos visto dieron los antiguos a una región de Europa central bañada por el río Scaldia, que leído a la vasca da Izkaldea. Hoy en día la región formada por la desembocadura del río Scaldia (en francés Escaut, en flamenco Schelde y en castellano Escalda) se llama en neerlandés ZEELAND, que significa lo mismo que Izkaldea, es decir, el país marítimo . (1978, 39. orr)

Amaieraren aldean hiztegi bat dakar, quantxerako hitzen parekoak euskarari eta, batzuetan, plataforma sozio-linguistikoko beste hizkuntzetan bilatuz. Adibide batzuk:

ABE: pariente. En sumerio: aba = padre. En vasco: abe = antepasado.

AGOÑEK: Juramos, En vasco: iagon = cuidar, patrocinar.

AGUA: Vecino. En vasco: hauzua = el ve- cino. Ubykh: agula = vecino. Abkhazio: aguaq = vecino.

AIKA: atención. EN vasco haika = escucha, levántate.

AL: Poder. En vasco: al, ahal = poder.

AIZURA: Agua helada. En vasco: izura = agua helada; gazura = capa de nieve.

ASTEN: De las peñas. En vasco: haitzen ~ de las peñas. El cambio de aitz en ast lo encontramos en Astondo por Haitzondo. La palabra atz, hatz aparece en bastantes toponímicos canarios, como Achbinico = Atzbiniko.

BA: Si condicionante. En Hierro, también wa. En vasco: ba-. P. e., ba be nuza, en vasco: beha ba naza = En caso de que me mire, si me mira.

DUR: Nariz. En vasco: sudur = nariz.

ETXE: Morada. En vasco; etxe = casa. En sumerio: e, exe = casa.

FAI: Fiesta, rito, ceremonia. En vasco: jai, De esta palabra se deriva la de FAIZAN: sacerdote de Gran Canaria. Compuesta de fai — jai y de zan = se- ñor (vasco: jauri).

FAIA: Guardia, tropa. En vasco: zaia = guardia. FAIAHURAKAN: Compuesta de: faia = guardia En vasco: zaia; hura — grande En vasco: gora = alto; kan = señor En vasco: jaun = señor.

KORAN: Dios (en Gran Canaria). Superlativo de go- ra = alto. Goran = el mas alto.

LEIBA: Hija. En vasco: alhaba.

NAHAI Voluntad. Vasco: nahi = voluntad. NAHAIADIR: (§ 28) Compuesto de nahai = voluntad y -dir = poseedor de. En vasco; nahiduru, nahidun = voluntarioso.

PELUT: Huerfano. En vasco buluz = desnudo, en buruxaski balush = persona que no tiene hijos.

TAHUIAN: Falda. En vasco: gona — falda, En ubykh: huian = falda.

TEBIZ: Caza. En vasco: ehiz — caza.

ZELE: Luna. En vasco: hila, y en griego: sele-ne.

ZINU: Cual. En vasco: zein.

Hiztegi honetan Krutwigek zenbait bitxikeri dakartza, adibidez, waskoren etimologia:

GWAN: Hombre. En realidad: wan con el diminutivo -tto (en vasco: -tto) da el nombre en general, ser humano, como en lenguaje bíblico se dice: “el hijo del hombre”. En alemán, partir de Mann = hombre, con el diminutivo -sko se ha formado mann- sko, que se ha convertido en Mensch y tiene el mismo significado. Por ello, gwantto, quantto quiere decir hombre (persona humana). Parece que la misma etimología se debería atribuir a la palabra wasko.,. que estaría formada de wan con el sufijo diminutivo... y pérdida de la nasal... wan-sko→wansko→ wasko. El genitivo plural de gwantto daría gwantxen — de los hombres.

Dena den, deigarriena, ziur asko, quantxerak edukiko lituzkeen aditz-egituren eraikuntza litzateke. Eusko-quantxe elkartasunerako motibazio berria, haur euskaldunen eran ume quantxeak aditz-taulekin borrokan irudikatzea... Adibidez:

DU: (§ 28) El lo tiene. Forma auxiliar del verbo tener, haber. En vasco: du. Ejemplo guanche: hani du = lo ha dejado. A partir de esta forma y dado que se tienen las formas ait-itu, zinituen y abett... se puede reconstruir el entero esquema de este verbo que coincidiría con el vasco.

na	u		k,n	ø		zu	te	
ha	u	t		ø	gu		te	
d	u	t	k,n	ø	gu	zu	te	
ga	it	u	k,n	ø		zu	te	
za	it	u	t	ø	gu		te	
d	it	u	t	k,n	ø	gu	zu	te

GWAIOTT: El le es... con la terminación de aoristo -tt. Equivale al vasco zaio — el le es (presente). Comparando esta forma verbal con la anterior, podríamos sacar fácilmente (como conocemos otros elementos de la conjugación, como zakhonamet, zakhut, etc.) el completo esquema:

natgwai		k,n	o		zu	e
hatgwai	t		o	gu		e
gwai	t	k,n	o	gu	zu	e
gatgwai		k,n	o		zu	e
zatgwai	t		o	gu		e
gwai	t	k,n	o	gu	zu	e

f) Beste inplikazio batzuk

Pentsalari aske eta oparo gisa, aurreko lanak albo-ondorioak ekarri zizkion, aurre-indoeuroparren pisu historikoa ulertzen laguntzen dutenak. Besteak beste:

Si ese fondo pre-indoeuropeo ha tenido tanta importancia... ¿por qué, por qué razón ha sido una lengua indoeuropea, como el griego, justamente la lengua que más influencia ha tenido en el mundo, aun cuando esta lengua tenga elementos lexicales y morfológicos pre-indoeuropeos? ... [En] las teorías empíricas que se realizan a partir

de la experiencia es ... que la experiencia cultural pre-indoeuropea (garaldetana) ha tenido su máxima importancia, mientras que los griegos nacidos de una mezcla de elementos garaldetanos con indoeuropeos, son ellos los progenitores del llamado milagro griego, que consiste en haber inventado la especulación filosófica, es decir, el manejo de las teorías deductivas, que son las que están en la base de lo que llamamos la ciencia. (1978, 14-15. orr)

g) Argudiaketaren beste litsak

Bere hipotesiari euskarria emateko argudio litsak orrazten ditu, adibidez, quantxearen aditz eskemak berebereak ez direla (169-171. orr) eta zenbakiak berebere eskema horretan interpretatzeko iturrien benetakotasun arazoak daudela ere (171-175. orr).

Amaitzeko, piktoeraren inskripzio kaledonioak euskaraz irakurri daitezkeela dio, Garaldea plataforma linguistikoa zela sostengatuz. Adibidez:

Nauke tagona → eusk: Nauke dagona (me tiene el que está aquí)

Doannataenakotekaetua → eusk: Doana da Eneko t'ekaitsua (el que se va es Eneko y la preocupación)

Luaneneqoarren → eusk: Loan Enekoraren (en el sueño de Eneko)

Belaskuanuk...ta → eusk: parece contener Belasko (Cuervo)

Eta zera ondorioztatzen du: “las diferencias entre el picto/caledonio y el vasco no serían mayores que entre el vizcaíno y el labortano” (182. orr).

Horregatik ezinbestekoa dakusa “liberarnos un poco de la celtomanía, que fue una de esas pseudo-ciencias inventadas en el siglo XIX para justificar mayormente teorías políticas de pueblos conquistadores”, egungo Espainian gertatu legez: “los celtómanos modernos de la Gran Bretaña no hacen otra cosa que cambiar por acá o allá algunas letras, o añadir... de suerte que cualquier hipótesis sea posible” (185. orr). Eskoziarren eta euskaldunen arteko parekotasun historikoen zerrendarekin amaitzen du alde hau, bitxikeriz josia.

Amaitzeko, Aosta eta Po haranetan izen aurre-indoeuroparrak gogoratzen ditu, hizkuntza germanikoetan atzizki garaldetarrak nabarmentzen ditu, eta sumeriera aztertzeke apunte batzuk ematen ditu.

h) Oro har

Ez-ohiko pentsalari orijinal eta metodikoa zen Krutwig, euskararen jatorrirako Europa Mendebalde + Afrika Iparralde baten hizkuntza sendia proposatu zuena, Ekialde Hurbilarekin erlazio estuak izan zituen. Hizkuntza-sendi eta soziolinguistika plataforma horri *Garaldea* zeritzon, eta hurbilketa zentzudunena euskeraren eta quantxeraren arteko parekotasunak zundatzea zela proposatu zuen, euskera oraindik bizirik eta quantxerari buru testu itzuli berantiarrak daudelako.

i) Iturriak

(1945). Mâya-ren oihala: El velo de maya; eta gernikako arbolaren fruktuak. Gernika, 15

(1963). Vasconia. estudio dialéctico de una nacionalidad. Norbait, Buenos Aires,

(1968). Euskalerría, clave para la investigación de las más antiguas culturas del mundo”. In Martín de Retana, José María (Ed.), La gran enciclopedia vasca (pp. 376-380). Bilbao: La gran enciclopedia vasca.

(1971). Manifeste de l'ethnocratie (firmado con el seudónimo fernando sarrailh de ihartza). Vinkeveen (Pays-Bas): Fringilla.

(1978). Garaldea. sobre el origen de los vascos. Donostia: Txertoa.

(1997). Federiko krutwigi elkarrizketa. Jakin, 101, 61-106.